

## EDITORIALA

### Egon badago, salda badago

**Z**erbitzu Publikoetan 20.000 lanpostu duin gehiago sortzeko 1.000 milioi euro gehiago beharko lirateke. A zer dirutza! Kontuan izanik, ordea, Europako batz-bes- teko presio fiskala bagenu administrazioek 5.000 milioi euro gehiago izango lituzke- tela, agian ez da horrenbes- terako.

Egon badago, baina gutxi batzuen eskuetan. Lan-erren- tek zergak ordaintzen ditugu, enpresariak nahi dutenean ordaintzen dute. Eta ordain- tzen ez dutenerako amnis- tiaz dituzte. Hau pagotxa!

Egon badago, baina gure politikariak erabaki dute hobe dela enpresariari aurre ez egitea. Hori bai, zerbitzu publikoetan milaka lanpostu suntsitzeko ez dago arazorik.

Egon badago, baina admin- istrazio publikoetako zuzen- daritzek nahiago dute gure lanpostuak prekarioak izatea, horrela nahi dutenean lan- postuak desagertu arazi ditza- ketete eta zerbitzu publikoak merke saldu.

Egon badago, baina Euskaltelek 50 milioi euro irabazten ditutenean berau oparitzea erabakitzen da, gizarte guztiaren irabaziak zirenak gutxi batzuenak bihurtzeko.

Egon badago eta 20.000 lanpostu horiek sortzea lor- tuko dugu, beti ere mobiliza- zio nahikoa badago. Egon badago, mobilizazioa badago.

## ZERBITZU PUBLIKOETAKO PREKARIETATEAREN AURKA

# 20.000 emplegu duin sortu litezke!

**Zerbitzu publikoak desmuntatu eta pribatizatzeo, gizartearen onse- pena bilatu behar da; eta horretarako, funtzionarioak petxero edo paga- buru bihurtzea oso baliagarria da.** Bide horretatik funtzionario pribilegiatuaren estereoti- poa sortu dute. Irudi- molde horren arabera funtzionarioak pertsona gris eta motelak dira, zer- bitzuaz arduratu barik haien kezka bakarria atse- denaldietako kafea hartzea da, eta gainera, lanpostua ziurtaturik dau- kate.

Ez dute esango, ordea, zerbitzu publikoak gizar- tearentzako oinarritzko zerbitzuak direla (gizarte- prestazioak, osasuna, hez- kuntza...), eta nekearen nekez konkistatu zirela kapitalismoaren negozio- atzaparretatik. Horretarako sortu zen enplegatu publikoaren figura: gizarte osoari zerbitzu publikoak bermatzeko; berdintasun- ez, objektibotasun- ez, inpartzialtasun- ez eta independenziaz, gizabanakoaren eta alder- dien interesekiko.

Horregatik, zerbitzu publikoaren aurkako eraso horretan, zeharka ekitea erabaki dute, eta zerbitzuko lan-baldintzak lohituz eta prekarizatuz ari izan dira jo eta ke. Gure lan- baldintzak, pribilegioa baino, lan-merkatua- ren prekarizazio orokorraren aitzindari dira.

**Hego Euskal Herrian milaka lan- postu suntsitu dira zerbitzu publikoetan:** osasunean, hezkuntzan, toki-, foru- eta autonomia-administrazioetan,

## Udaletxe eta Foru Aldundietan prekarietate eta enplegu suntsiketari



# STOP!

Plantilla / Langileak  
**2011: 31.200**

Plantilla / Langileak  
**2015: 27.800**

Behin-behinekotasuna / Interinidad  
**%35**

Subcontratación / Azpikontzatasunak  
**40.000**

3.400 langile gutxiago

10.000 langile baino gehiago

Langile bakoitzeko langile 1' erdi azpikontzatatua



**Langile publikoen pribilegioak zerbitzu publikoak pribatizatzeo erabilitako mitoa da**

Horrekin batera, behin-behinekotasunaren tasa batez besteko tasaren oso gainetik dago. Sektore publikoko 3 lan-giletik 1ek aldi baterako kontratua du. Zenbait administrazioetan behin-behinekotasuna %50etik gora dago. Administrazioan enplegu segurua izatearen "pribilegioa" gezur handi bat da, baina oso komenigarria, gizartea herrilangileen aurka jartzeko, batez ere mobilizazioak egiten dituzten garaietan.

Azpikontratazio eta pribatizazioen politikak benetako administrazio paralelo bat izatera eraman gaitu. Zenbait administrazioetan gehiago dira azpikontraten bitartez lan egiten dutenak, zuzenean lan egiten dutenak baino. Politika horren xedea zerbitzu publikoa argaltzea da, eta etekin pribatuak sustatzea, enplegu publikoa prekarizatzearen kontura (kalitate gutxiagoko zerbitzua, lanaldi partzialeko kontratuak, gehien-gehienak emakumeentzakoak).

**Egoera hori ezagutarazteko, ELAK prekarietatearen aurkako kanpaina bati ekin dio.** Gure asmoa sektore publikoan dauden prekarietate-kasuak salatzea da, eta euskal

gizarteari erakustea nolakoak diren lan-baldintzak udaletan, auzoetako anbulatorioetan, seme-alaben eskoletan, adinekoen egoitzetan eta abarretan. Baina gure zeregina ez da mugatuko egoera salatzea, aurrerago joan nahi dugu, eta proposamen zehatzak plazaratuko dizkiegu gure agintariei egoerari buelta emateko. Langileak, eta gizarte osoa, arazo horretaz jabeaz nahi ditugu, eta gero antolatu eta mobilizatu; zerbitzu

publikoak, lanpostuak eta lan-baldintzak sustatzearen.

Gure helburua gizarteak behar dituen eta merezi dituen zerbitzu publikoak eskaini ahal izatea da. Zerbitzu publiko horiek bermatu eta gauzatu behar dituzte pertsonen eskubide unibertsalak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, zainketak, gutxieneko diru-sarrerak, garraioa...). Zeren zerbitzu publikoak oinarrizko justizia sozialaren bermeak dira, eta baita tresnak ere, langileok eta gizarte osoak geure buruari hornitu dizkiogunak, bidegabekeriak geldiarazteko, eta berdintasunean eta elkartasunean aurrera egiteko. Horretarako, orain arte suntsitu den enplegua berreskuratu behar dugu, gaur egun dauden enplegu-beharrizanak bete, eta gainera enplegua kalitatezkoa izatea bilatu.

**Administrazioan orokortua dagoen prekarietatearen aurkako kanpaina hasi dugu. Posible da kalitatezko 20.000 lanpostu berri sortzea**

**Behar ditugun lanpostuak —duinak eta kalitatezkoak— 20.000 dira, langa horretara heldu daiteke. Goazen bila!!!**

# Zer gertatzen da toki- eta foru-administrazioetan?

PREKARIETATEA EZ DA MADRILEN ERABAKITZEN, GURE ERAKUNDEETAN EGUNETIK EGUNERA ERABAKITZEN DA

**U**daletan, foru-aldundietan eta sektorea osatzen duten ente publikoetan egoera ez da bestelakoa. Krisia aitzakia ederra izan da gure agintarientzat, eta esparru honetan ere enplegu publiko ugari suntsitu da, zerbitzuak pribatizatuz eta kidego desberdinen lan-baldintzak prekarizatuz.

Gastua gelditzeko beharra eta murrizketak Madrilen erabakitzen direla argudiatuz gure agintariak milaka lanpostu suntsitu dituzte toki- eta foru-administrazioetan, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren datuen arabera. Izan ere, EAEko toki- eta foru-erakundeetan 3.400 lanpostu suntsitu dira azken lau urteotan.

**Udal eta foru administrazioan 3.4000 lanpostu suntsitu dira azken lau urteetan, hau da, zegoen enpleguaren %10etik gora**

Enplegua suntsitzeko, hainbat formula erabili dira: plazak amortizatuz, postu hutsak bete gabe utziz, egitura-postuetan iruzurrezko kontratuak edo bitarteko kontratuak erabiliz, bajaran dauden langileak ez ordeztuz.

**Bizkaiko Foru Aldundian: 255 lanpostu bete gabe (%8,5). Donostiako udaletxean: 103 lanpostu bete gabe (%7,5)**

Gure agintariak diote, krisia eta guzti, funtsezko zerbitzu publikoak eskaintzen dizkietela herritarrei modu duin eta unibertsalean.

ELAtik diogu hori gezur handi bat dela, ezinezkoa dela zerbitzu horiek berak herritarrei bermatzea, 3.400 lanpostu gutxiagorekin. EAEko enplegu publikoaren tasa Europako Batasunekoaren erdia da, eta gizarte-babesean egiten dugun inbertsioa BPGaren %19koa da, EBeko batez bestekotik 8 puntu txikiagoa, 5.400 milioi euro gutxiago inbertitzen dugu gizarte-babesean.

	2011 urtarrilak 1	2015 urtarrilak 1	Diferentzia
ARABA	7.437	6.446	-991 (-%13,33)
BIZKAIA	13.987	12.236	-1.751 (-%12,51)
GIPUZKOA	9.821	9.163	-658 (-%6,7)
EAE	31.245	27.845	-3.400 (-%10,8)

# Enplegu segurua izatearen “pribilegioa”, gezur handi hori

## 3 LANGILETIK 1 BITARTEKOA DA

**U**DALHITZ Akordio Erregulatzailaren eta EBEP-en bitartekotasuna %7ra mugatzen bada ere akordioaren eraginpeko erakundeetan, errealitatea oso bestelakoa da. Gaur egun esparru horretako bitartekotasun-tasa %35 baino handiagoa da. Bestela esanda, 3 langiletik batek bitarteko kontratua du, eta datu hori handiagoa da sektore pribatuan dagoena baino. Zenbait arlotan bitartekotasuna are handiagoa da, eta %50 ere gaindizteraino heldu da.

Bitarteko langile horiek, oso portzentaje altuan, erakundeko ohiko eginkizunak egiten dituzte, langile finkoek egin beharko lituzketenak. Bitarteko langile horien kontratazioa, beraz, lege-iruzurrean egina izan da.

Gure agintariak bitartekotasunaz baliatzen dira, lehen urrats moduan, lanpostu hori suntsitzeko, eta zerbitzu hori pribatizatzeke. Tresna ere bada herri-langilea kasuan kasuko agintariaren aginduetara azpiratzeko, eta langile-kidegoaren antolatze- eta mobilizatzeko-ahalmena ahultzeko. Baliagarria da, baita ere, bi kidegoen (finkoak eta bitartekoak) arteko tirabirak sortzeko, eta batzuetan lortu ere lortzen dute.

Azpikontrazioaren eta pribatizazioaren alde gure agintariak egindako apustuak administrazio paralelo bat izatera eraman gaitu, bai toki-administrazioan, bai foru-esparrukoan; zeren, gaur egun, 40.000 langile baino gehiago dabilta lanean azpikontратen bitartez. Horrek argi eta garbi erakusten digu zein izan den gure agintarien apustua: pribatizatzea, zerbitzu publikoek baliatzea negoziario egiteko, eta udaletan bezero-sare bat sortzea. Zerbitzu publikoaren pribatizazioa edo azpikontратzioa bertako langileen lan-baldintzen kontura egiten da, baldintza txarragoak eta prekarioagoak ezarriz.

Aipaturiko datuek argiro erakusten dute gure agintariak ez dutela sinesten arlo publikoan, zerbitzu hori gastu moduan ikusten dutela, eta kosta ahala kosta merkatu behar dela, herri-langileen baldintzak prekarizatzearen trukean. Baina, batzuetan, eta datuei begiratu besterik ez dago, ez da merkeagoa zerbitzua azpikontратzea; badaude beste arrazoi batzuk, eta beste interes batzuk, gure agintariak azpikontратzioaren alde egin dezaten, eta administrazio paralelo bat betiko gera dadin.

Pribatizazioaren bidez plantillen bikoiztasuna ere bilatzen dute -zuzenekoak eta zeharkako azpikontратuak-, horrela kidegoaren antolatze- eta mobilizatzeko-ahalmena ahuldurik geratzen da, eta langileek ezin dute errebindikatu baldintza duinik zerbitzu publikoak behar bezala eskaini ahal izateko.

Halaber, bilatzen dute, eta zenbaitetan lortu ere lortzen dute plantillako langileak azpikontратatuen aurka asaldatzea, eta hortik onuraduna pribatizazioaren alde dagoena izaten da.

Datuak ezin argiagoak dira: **Bilbo:** 3.200 langile azpikontратatuak. (Plantilla, 2.350). **Gasteiz:** 2.000 langile azpikontратatuak. (Plantilla, 2.850) **Donostia:** 2.000 langile azpikontратatuak. (Plantilla, 1.300) **Barakaldo:** 900 baina gehiago azpikontратatutako langile. (Plantilla, 600). **Leioa:** 200 langile azpikontратatuak. (Plantilla, 175). **Irun:** 385 langile azpikontратatuak. Plantilla, 425. **Arrasate:** 237 langile azpikontратatuak. (Plantilla, 240).

Krisiaren aitzakiatan: negoziario kolektiborako eskubiderik ez, lan-baldintzen gainbehera, sinaturiko akordioak bete gabe utzi, alde bakarretik erabakitzea, eta prekarietate handiagoa herri-langile azpikontратatuentzat.

Gure agintariak, krisiaren eta Madrilgo aginduen aitzakiaz, sistematikoki utzi dituzte bete gabe akordio sinatuak, eta alde bakarretik okertu dituzte herri-langileen lan-baldintzak. Lehenago ere aipatu dugunez, azken urteotan etengabe errepikatu diren gertaerak hauek izan dira: enplegu-suntsipena, eroste-ahalmenaren galera, ordezpennik ez egitea, lan-kargak handitzea, eta herri-langile azpikontратatuen prekarietatea areagotzea.

**Udal eta foru administrazioan azpikontратatutako langile gehiago dago langile propioak baino zerbitzu publikoak eskaintzen. Gainera, hiru langiletik bat behin-behinekotasun egoeran dago.**

ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
Erakundea	Behin-behinekotasuna	Erakundea	Behin-behinekotasuna	Erakundea	Behin-behinekotasuna
Gasteiz	%44,3	BFA+IFAS	%27,5	GFA	%32,5
Arabako FA	%26	Bilbo	%16,7	Donostia	%32,6
		Durango	%44,6	Hondarribia	%46
		Bermeo	%53,1	Errenteria	%36,1
		Santurtzi	%35	Eibar	%30,63
		Getxo	%31,65	Azpeitia	%47,6
		Ermua	%42,9	Lasarte	%55,7
		Barakaldo	%32,7		

## GURE ERRONKAK...

Egoera horri buelta eman behar zaio, hor daude jokoan enplegua, sektoreko lan-baldintza duinak, eta erakunde horietako zerbitzu publikoen geroa bera ere: zerbitzu publiko hori herritarrei bermatzea unibertsaltasunez, berdintasunez, objektibotasunez, inpartzialtasunez eta independentziaz ekimen pribatuaren eta alderdien interesekiko.

Horretarako, ELAren aldetik hainbat frontetan borrokatuko dugu, zerbitzu publikoei tinko eusteko neurriak herri-erakundeei galdatu.

**1.- Borroka egin, enplegu publikoa sortzeko.** Azken urteotan suntsituriko enplegua berreskuratu (3.400 lanpostutik gora). Lanpostu huts guztiak bete; bajaran dauden langileak, amatasunak eta abar ordeztu. Enplegu publiko berria sortu.

**2.- Bitartekotasuna ezabatu.** Bitartekotasuna %7ra mugatu (Udalhitz betez). Urtebete baino denbora luzeagoko langileak mugagabe bihurtu. Enplegua egonkortu.

**3.- Pribatizazio gehiagorik ez, eta herri-langile azpikontratatu lan-baldintzak duinago bihurtu.** Lan-baldintzak parekatzeko prozesuak abiarazi, eta baita publikatzeko prozesuak ere, enplegua beti ere mantenduz.

**4.- Negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratu, eta baita galdutako eroste-ahalmena eta eskubideak ere.**

**5.- Zerbitzu publikoak prekarizatzen dituzten eta bitartekotasuna ugaltzen dituzten lege-proiektuak geldiarazi.** (Enplegu Publikoaren Legea, Suhiltzaileen Legea...).

**6.- ELAk aurkezturiko Legegintzako Herri Ekimena onartarazteko borroka egin.**

## ETA ALTERNATIBAK!

Gehienetan erakundeetako arduradunek legeak, gogokoak izan edo ez izan, betetzera beharturik daudela esaten badigute ere, egia esan behar badugu, prekarietatea hemen, gure erakundeetan, egunetik egunera erabakitzen dela esan behar dugu; ez da zilegitasun-kontua, borondate politikoarena baizik. ELAK, murrizketen kasuan hainbestetan esan duen bezala, oraingo honetan berriz ere aldarrikatuko du alternatibak badaudela, eta borondate-kontua dela. Sarri askotan erreindikatu, borrokatu eta lortu dugun bezala, beste era bateko politikak egin daitezke. Langileen eta herritar guztien aldeko politikak egin daitezke. Horregatik ELAren esaten dugu guk baditugula alternatibak, gure toki- eta foru-erakundeetan enplegu egonkorra, duina eta kalitatezkoa sor daitekeela:

- **Egonkortasuna:** erakundeetako langileena eta lanpostuena, dauden mekanismoak erabiliz.
- **Enplegu Publikorako Eskaintza deialdiak egin:** erakundeetan dauden lanpostu huts guztiak hartuz.
- **Lanpostuak sortu:** herritarren beharrezan, gero eta handiagoak, artatzeko.
- **Azpikontratazioa ezabatu:** ez azpikontratatzeko zerbitzu gehiagorik, eta oinarriko zerbitzuak berriro publikatzeko azterlanak egingo dira.
- **Zerbitzu publikoen aldeko apustu sendoa egin:** administrazioek zerbitzu guztiz publikoak bermatuko dituzte, kudeaketa publikoa izan behar dutenak, eta beren langileei lan-baldintza duinak eskaini behar dizkietenak.

Modu antolatuan borrokatuko dugu, egoera honi buelta emateko. Egoera irauli ahal izateko, esparru bakoitzeko prekarietatea identifikatu behar dugu, langile-kidegoa antolatu, alternatiba landu, indar-korrelazioan aurreratu, eta borondatea aldatu. Hau gure esku dago!

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**HARPIDETZA**  
**HOJA DE AFILIACION**

### Nº AFILIACION / AFILIAZIO ZENBAKIA

Nombre / Izena.....  
1er apellido / 1. abizena .....  
2º apellido / 2. abizena .....  
Fecha de nacimiento / Noiz jaioa .....  
Lugar de nacimiento (Indicar provincia) /  
Non jaioa .....  
D.N.I. / N.A.N.....

### DOMICILIO / HELBIDEA

Dirección / Helbidea .....  
Localidad / Herria .....  
Provincia / Probintzia .....  
Teléfono / Telefonoa .....  
E-mail / Posta elektronikoa.....  
.....

### EMPRESA DONDE TRABAJA / LANTOKIAREN IZENA

Nº Inscripción Seguridad Social / Aseguro  
Sozialaren Zenbakia .....  
Nombre / Izena .....  
Domicilio / Helbidea .....  
Localidad / Herria .....  
Tipo de industria / Industri mota.....  
Convenio / Konbenioa .....

### PAGO DE CUOTAS / KUOTEN ORDAINKETARAKO

Banco o Caja de Ahorros / Bankua edo  
aurrezki-kutxa .....  
IBAN zenbakia (Banku kontua)/ nº IBAN  
(Cuenta bancaria) .....  
.....  
Tipo de cuota / Zein mailako kuota  
.....  
Fecha de solicitud / Eskabidea noiz  
egiten duzu .....  
**Firma / Sinadura**